



Data / Fecha	2026 Ekainak 7, igandea / 7 de Junio, Domingo 2026
Ordua / Horario	10:00etatik 14:00tara / De 10:00a 14:00
Tokia / Lugar	Euskadi Plaza, Azoka
Ekintza / Actividad	BIGARREN ESKUKO AZOKA / MERCADO SEGUNDA MANO

XEDEA ETA HELBURUA

Bigarren Eskuko Azokaren helburua herritarren arteko topaketa eta parte-hartzerako aldi baterako gune bat antolatzea da, partikularren artean bigarren eskuko produktuen salerosketa eta trukea sustatzeko, egoera onean dauden objektuen berrerabilpena eta kontsumo arduratsua bultzatzuz.

Ekimenaren xede nagusia ekonomia zirkularrarekin bat datozen jardun iraunkorrak sustatzea da, hondakinen sorrera murrizten eta dagoeneko existitzen diren baliabideei balioa ematen lagunduz.

Osagarri moduan, jarduerak ingurumenarekiko eta gizartearekiko sentsibilizazioa sustatu nahi du, kontsumo arduratsua eta kontzienteago baterako alternatibak bultzatzuz, baita elkarbizitza eta hiri espazioaren erabilera partekatua indartuz ere.

PARTE HARTZEKO MODALITATEAK

Bigarren Eskuko Azokak bi parte-hartze modalitate izango ditu:

➤ “Erreserbatu zure mahai” modalitatea

Parte-hartzaileek merkatuaren ordutegian beren produktuak erakutsi, saldu edo trukatzeko mahai edo espazio bat izango dute esleituta.

Parte-hartzaile bakoitza bere postuaren arduraduna izango da, bai postuaren dinamizazioari dagokionez, bai erakutsitako objektuen zaintza eta bilketari dagokienez.

Modalitate honetan parte hartzeko beharrezkoa izango da alde zurretatik izena ematea eta antolakuntzaren baieztapena jasotzea.

➤ “Gordailu zerbitzua” modalitatea

Gordailu modalitatearen bidez, parte-hartzaileek bigarren eskuko objektuak entregatu ahal izango dituzte, azokaren egunetan antolakuntzak berak haien erakusketa eta salmenta kudea ditzan.

Objektuak azokaren egun berean entregatu ahal izango dira, goizeko 9:00etatik 10:00etara bitartean. Entrega egitean, objektuak erregistratu egingo dira, jabeak ezarritako prezioarekin batera.

Modalitate honetan **gehienez 10 objektu** entregatu ahal izango dira pertsona bakoitzeko, eta **ez da beharrezkoa izango aurretiaz izena ematea**.

Ez dira onartuko arropa, osagarriak edota tamaina handiko altzari eta objektuak.



Gordailuan utzitako objektuek kontserbazio eta erabilera egoera egokian egon beharko dute. Antolakuntzak baztertu ahal izango ditu ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten objektuak edo beren ezaugarrien, tamainaren edo egoeraren ondorioz modalitate honetarako egokiak ez direnak.

Azoka amaitutakoan, parte-hartzaileek antolakuntzak adierazitako ordutegian jaso beharko dituzte saldutako objektuen ordainsariak edo, hala badagokio, saldu gabe geratutako objektuak.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Honako hauek parte hartu ahal izango dute Bigarren Eskuko Azokan:

- Adin nagusiko pertsonak.
- Partikularrak (ez profesionalak), elkarteak eta ikastetxeak.
- Lehentasuna izango dute Zumarragan bizi diren partikularrek. Hala ere, baldintza hauek betetzen dituen edozein pertsonak parte hartu ahal izango du.

IZEN-EMATEAK

Interesa duten pertsonak maiatzaren 29a baino lehen eman beharko dute izena, egun hori barne.

Izena emateko bideak honako hauek izango dira:

- Kartel informatiboan agertzen den QR kodearen bidez edo www.merkabi/zumarraga.eus gunean.
- 943 729 022 telefonora deituz (187 luzapena).

Plazak mugatuak izango dira eta parte-hartzea doakoa izango da, aldez aurretik izena eman eta antolakuntzaren baieztapena jaso ondoren.

Plazen esleipena eta parte-hartzearen baieztapena ezarritako lehentasun-hurrenkeraren eta dagoen erabilgarritasunaren arabera egingo dira.

ONARTUTAKO PRODUKTUAK

Oro har, egoera onean dauden bigarren eskuko produktuen salmenta edo trukea baimenduko da, besteak beste:

- Liburuak, musika diskoak eta kultur materiala.
- Jostailuak eta haur artikuluak.
- Etxerako eta dekoraziorako objektu txikiak.
- Aisialdi, kirol eta denbora libreko artikuluak.
- Arropa eta osagarriak.

Objektu guztiek higie, segurtasun eta funtzionamendu baldintza egokiak bete beharko dituzte.



ONARTUKO EZ DIREN PRODUKTUAK

Ez da baimenduko honako produktu hauen salmenta edo trukea:

- Elikagaiak eta edariak, etxean egindakoak zein ontziratuak edo soltean saltzekoak.
- Berrerosteko eskuratutako produktu berriak edo jarduera komertzial edo profesionalarekin lotutako produktuak.
- Animaliak eta, oro har, animalia-jatorriko produktuak.
- Sendagaiak eta osasun-produktuak, errezetarekin edo gabe, baita osasun-materiala ere.
- Irekitako, erabilitako edo behar bezala etiketatu gabeko kosmetiko eta higiene pertsonaleko produktuak.
- Armak eta objektu arriskutsuak, hala nola laban, aizto edo arma gisa erabil daitezkeen bestelako objektuak.
- Material arriskutsu edo sukoitsuak eta produktu kimikoak.
- Egoera txarrean dauden edo gutxieneko segurtasun baldintzak betetzen ez dituzten aparatu elektriko edo elektronikoak.
- Seguruak ez diren edo hondatuta dauden jostailu eta haur artikuluak.
- Faltsututako, lapurtutako edo legez kanpoko jatorria duten artikuluak.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera debekatuta dagoen edo baimen berezia behar duen beste edozein produktu.

Antolakuntzak baldintza hauek betetzen ez dituzten edo desagokitzat jotzen diren produktuak azokatik kentzeko eskubidea izango du.

ARAU OROKORRAK

- Parte-hartzaile bakoitza saldu edo trukera ateratzen dituen objektuen arduraduna izango da.
- Postuak garbi eta txukun mantendu beharko dira jardunaldi osoan zehar.
- Azoka amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak sortutako hondakinak bildu eta espazioa egoera egokian utzi beharko du.
- Antolakuntzak postuen banaketa ausaz egingo du
- Partikular bakoitzari mahai bat (2,5 X 0,5 m) utziko zaio eta oihal bat ere bai, mahaia estaltzeko. Elkarteei, bina mahai. Alboan, arropak zintzilikatzeke "astoa" jar daiteke, norberak eramandakoa.
- 9:00-9:30 bitartean hurbildu behar da informazio puntura. 10:00etarako guztiak prest egon behar du. 14:00ak arte postuan mantendu behar da.
- Ezingo da ibilgailurik sartu plazara eta antolakuntzak ez du aparkatzeko lekurik erreserbatuko.
- Arau hauek ez betetzeak azokatik kanporatzea ekar dezake.